

OLATU TALKA 2019: PROPOSAMENEN DEIALDI OROKORRA

Xedea

Deialdi honen helburua, 2019ko maiatzaren 31 eta ekainaren 1 eta 2an ospatuko dugun Olatu Talka jaialdiaren 10. edizioaren programa osatuko duten proposamen eta egitasmoak jasotzea da

Aurkezpena

Olatu Talka hiria eta hiritarren partaidetzari protagonismoa ematen dien diziplina anitzeko kultur jaialdia da.

Jaialdia, salbuespenak kenduta, gune publikoan ospatuko da eta betiere Donostiaren eremuan. Olatu Talkako jarduera guztiek izaera inklusiboa izango dute eta haietarako sarbidea doakoa izango da, nahiz eta kasu batzuetan pertsona kopuru jakin bati mugatuak egon daitezkeen.

Olatu Talkaren bereizgarritasuna, jaialdi gisa, ikus-entzuleei zuzendutako eskaintza kulturala baino, haien lana, talentua eta sormena herritarrekin partekatu nahi duten pertsona eta elkarteei zuzendutako zerbitzua izatean datza, horretarako Donostia Kulturak eskaintzen duen azpiegitura eta lantaldeaz baliatuz.

Deialdi honetan aukeratuko diren proposamenen eragile amateur edo profesionalak ez dute dirusaririk jasoko haien sorkuntza edo lan artistikoaren truke.

Olatu Talkak aukeratutako proposamenak aurrera eramateko medioak eta lantalde tekniko bat eskaintzen ditu, beharrezko diren baimenen kudeaketatik abiatu eta jardueraren ekoizpen tekniko eta komunikazioaz arduratzeko.

Parte-hartzaileak

Aurreko puntuak kontutan hartuta, Olatu Talka jaialdiak eskaintzen duen aukeraz balia litezkeen 3 profil nagusi identifikatzen ditugu:

- Sorkuntza lana modu ez-profesionalean garatu eta publiko baten aurrean aurkeztu edo partekatu nahi duten pertsona edo elkarte amateurak.
- Olatu Talka haien profesionalizatzeko bidean aurrera pauso edo bistaratze plataforma gisa erabilgarri ikusten duten profesional hasiberriak.
- Olatu Talkaren laguntzaz, egitasmo pertsonal edo kolektiboak ekoitzi edo testatu, formatu berriak probatu, beste eragileekin sinergiak planteatu edo baimen kudeaketa berezia beharko duten lekuetarako sarbidea lortzeko aukera ikusten duten eragile profesionalak.

Proposamenak

Izaera kulturala duten edozein motatako proposamenak aurkeztu daitezke:

- Ikastaro labur, lantegi eta ibilbide didaktikoak.
- Jaialdi egunetan eta gune publikoan gauzatuko lirakeen proiektu artistiko pertsonal edo kolektiboak.
- Jaialdi tematiko txikiak.
- Urtean zehar sorkuntza diziplina desberdinetako eskoletan egindako lanaren plazaratzea.
- Hirigunean interbentzioak egiteko proposamenak
- ...

Definizio maila desberdinetako proposamenak aztertuko ditugu, kasu batzuetan egitasmoak xehetasuneraino landuak bazaizkigu ere, askotan elkarlanean garatzeko potentzial interesgarria azaltzen duten zirriborroak baloratzen ditugu. Proposamen "irekiak" ere jasotzen ditugu, pertsona edo elkarte batek bere ohiko sorkuntza lana azaldu eta parte-hartzeko borondatearen jakinarazpen soilak. Kasu horietan Olatu Talkako lantaldea mediazio lana egiteko prest egongo da, asmo politik egitasmo bihurtzen laguntzeko edo beste proposamenen batean txertatzea bideratzeko.

Proposamenen aurkezpena soilik www.olatutalka.eus webguneko formularioaren bitartez egin ahal izango da 2019k urtarrilaren 31 arte. Bertan, kontaktu informazioaz gain, proposamenaren nondik norakoak laburki azaldu beharko dira. Proposamena azaltzeko egoki estimatzen den informazioa artxibo digitaletan atxikitzeko aukera ere eskainiko da PDF gisa edo ZIP konprimitutako karpeta batean. Artxibo hauek sistemak onartutako gehienezko pisua gaindituko balute (10Mb) eragileak Olatu Talka bulegoarekin harremanetan jarri beharko luke beste bidalketa moduak aztertzeko.

Hautaketa

Olatu Talkaren 2019ko edizioaren programa osatuko duten proposamenak aukeratzeko orduan positiboki baloratuko dira hauen:

- Kalitate tekniko eta artistikoa.
- Gizarte interesa.
- Izaera berritzailea.
- Dibulgazio balioa.
- Herritarren parte-hartzea uztartzeko gaitasuna.
- Bideragarritasun tekniko eta materiala.

Olatu Talka koordinazio taldea, jasotako proposamen guztiak aztertu ondoren, izen-eman duten eragile guztiekin harremanetan jarriko da, telefonoz edo posta elektronikoaren bitartez, aukeratuak edo baztertuak izan diren komunikatzeko. Kasu batzuetan eragileekin bilerak adostuko dira egitasmoaren bideragarritasuna elkarrekin aztertu edo, kasua bada, egitasmoaren ezaugarriak birmoldatzeko.

Jasotako proposamenen kopurua edo konplexutasun mailaren arabera aldaketak egon badaitezke ere, 2019ko martxoaren hasiera baino lehen onartu eta baztertutako proposamenen zerrenda itxia izatea espero dugu. Hortik aurrera eragileak Olatu Talka taldearekin elkarlanean arituko dira jaialdian jarduera aurrera eraman ahal izateko.